

ELGETAKO UDAL PILOTALEKUA ERABILTZEKO ARAUTEGIA

- Erabilera libreko ordutegia elgetarren erabilerarako erreserbatuta dago.
- Elgetako Herri Eskolak zehaztutako hainbat egunetan lehentasuna izango du frontoiaren erabileran.
- Asteazkenetan eta ostiraletan , ordutegi librean, pilotarekin lotutako kirolek (eskupilota, pala...) izango dute lehentasuna. Asteazkenetan 17:30 tik 19:30era Pilota Eskolak erabiliko du frontoia
- Erabilera libre orduetan jolas talde batek ezingo du kantxa osoa erabili beste erabiltzaile batzuk badaude
- Erabilera libre orduetan, norbait zain balego, ezingo da ordu bete baino gehiago luzatu.
- 10:00ak baino lehen (irekiera ordua) pilotalekua erabili nahi izanez gero tabernan egin beharko da eskaera.
- Erabilera libre ordutegian erabiltzaileak argiak piztu nahiko balitu taberna eska lezake dagokion prezioa ordainduta.
- Erreserba ordutegian erabiltzailerik ez balego erabilera librea izango da.
- Erreserbak tabernan edo Udaletxean egingo dira

DEBEKUAK

- Kantxan, hormetan eta oro har instalazioan dagoen ekipamenduan kalteak eragin ditzaketan jolas materialak erabiltzea.
- Silikona / goma gurrpilak dituzten patinak erabili daitezke soilik.
- Pilotalekuan ezin da bizikletan ibili.
- Zesta-puntan jokatzea.
- Zaborra zoruan botatzea.
- Pilota entrenamenduko orduetan, erreserba orduetan edota txapelketako partiduetan kontrakantxan egotea edota bertatik pasatzea
- Erretzea.
- Alkohola edatea

OHARRA

- Elgetako Udalak eskubidea izango du antolatzen dituen pilota txapelketa nahiz bestelako ekitaldiak egiteko beharrezko dituen egun eta orduetan pilotalekua erreserbatzeko.
- Horrela, bada, erreserbatuta egon daitezkeen orduak ere bertan behera lagatzeko eskubidea izango du.